

Alberto Angós

«Lan hau egin dut pitzatuta nagoelako»

Barakaldarrari Sevillan piztu zitzaion euskalzaletasuna. Etxera itzulita soldatzaile izan zen La Navalen. Gero Erronkari bailara ezagutu zuen, eta Garden bizi da egun. Bertako euskarari buruzko hiru liburu argitaratu ditu, hain du kuttuna erronkariko uskara.

KARLOS ZURUTUZA

Barakaldotik Sevillara...

15 urterekin joan nintzen hara bizitzera eta bederatzi urte eman nituen Sevillan. Euskararekiko grina Sevillan piztu zitzaidan, hara iritsi orduko nire euskara oso "kolpatua" zegoen eta. Etxetik kanpo egoteak berpiztu zuen nire euskaltasuna. Bertan egonda ez dakigu zer daukagun, nekez balora dezakegu.

Noiz bueltatu zinen?

24 urterekin bueltatu nintzen eta Euskal Herrian zehar ibili nintzen. Hona, Gardera, neska batek ekarri ninduen, Algortako neska batek. Barakaldon neraman bizimodua oso itogarria zen, Sestaoko La Navalen nengoen soldatzaile, pentsa! Egia esan, hau askapena izan da niretzat, nahiz eta batzuk zioten lanik ez nuela topatuko hemen.

Euskalzale amorratua bazara ere, ez zenuen aukeratu Euskal Herriko herri-rik euskaldunena.

Bertako euskara galdu arren, oso euskaldunak iruditu zitzaizkidan hemengo ohiturak eta bizimodua. Esan genezake "erronkariar jarrera" egundaino mantendu dela. Barakaldon faltan bota izan dut beti honelako giroa.

"Keben badiozu zundarik"...?

Duela hiru urtetik hona Gardeko kanpina dut ogibide. Taberna ireki



KARLOS ZURUTUZA

Alberto Angósek, erronkarierari buruzko hiru liburu idatzita, euskara-uskara hiztegia egiteko asmoa du.

nuenean, oharrak uskaraz jartzea erabaki nuen, eta herriko batzuek zera galdetu zidaten behin: "¿Por qué escribes el cartel en euskera?". Euskara ez, erronkaria zela esan nien. Pozarren hartu zuten nire erantzuna. Izan ere, hemengo batzuentzat euskara "Eusko Jaurlaritzak inposatutako hizkuntza" baino ez da, batuarekin loturiko zerbaite, arrotza. Ez ordea, euren aiton-amonen erronkaria.

Nola egin dituzu hiru liburuak?

Herrietako euskalkiak jasotzen dituzten liburuetan oinarritu naiz. Aditz taulak berreskuratzea garrantzitsua zen. Erronkariaren kasuan, Bidankozekoak dira nagusiak. Horretarako transkribaketak eta Pedro Prudencio Hualde Mayoren *Ebangelioa* erabili ditut, azken hori baita erronkarieraz idatzitako libururik luzeena eta garrantzitsua. Mariano Saturnino Mendigatxa Bidankozeko laboriaren eskutitzak ere oso lagun-



Ezkerrean, maiatzaren 23an Urzainkin ospatuko den Uskararen Egunaren afixa. Alboan, Alberto Angósek Hiria argitaletxearekin kaleratu dituen hiru liburuak: *Erronkaria I, II eta III (Gramatika, Esaldiak eta Testuak)*.

garriak dira. Mendigatxa Azkueren laguntzailea izan zen. Bera eta Mayo baita Bonaparterenak ere.

Bestalde, Koldo Artolaren lana goitik behera aztertu nuen, eta Eskaltzaindian eskuratu nuen Bonaparteren ikerketa.

Gaiarreren eskutitzak erabili al dituzu?

Jakina, nahiz eta batzuk esaten duten euskaraz ez zekiela. Froga bakarra Bartzelonatik bere izebari idatzitako eskutitzak dira, Erronkariako museoan daudenak. Oso euskara zuzenean daude idatzita.

Eta Estornes Lasaren liburu gorri hura? Hori ere lagungarri gertatu zait. Oso lan polita da hura, baina gipuzkerarekin nahasten du hemengo euskara, ezin daiteke esan erabat fidagarria denik.

Antza, uste baino errazagoa da nahastea uskaraz ari garela, ez da hala?

Hasiera batean, Bonapartek eta Azkuek zubereraren azpieuskalkitzat

jotzen zuten erronkaria. Gero iritziz aldatu ziren biak, eta Azkuek bederatzigarren euskalkia zela esan zuen. Zaila da beti euskalkien arteko mugak marraztea. Izan ere, erronkariak berak ere beste hiru aldaera badauzka: Izaba eta Uztarrozekoa

“Gardeko alkatearekin hitz eginda nago erronkaria eskolak emateko. Ez du zertan talde handia atera behar, bost pertsonekin oso gustura arituko nintzateke”

batetik, Erronkari eta Urzainkikoa, eta azkenik, Garde, Bidankoze eta Burgikoa.

Hiru liburuak egiten bateren batek eskua botako zizun, ezta?

Bakarren batek, bai. Izabako Kattalingarde etxeok Koldo Artolaren telefonoa eman zidaten. Antza, Artola askotan etortzen zen euren-gana, Antonia Anautengana, hura

izan baitzen Izabako azken erronkariaduna.

Artolari deitu eta galdetu nion ea nire lana ikuskatzeko prest zegoen. “Erronkaria nire pasioa da, nola ez?”, erantzun zidan telefonoz.

Hilabetez aritu zen nire lana irakurtzen, eta bukaeran zoriondu ninduen.

“Baina, nork irakurriko du hau dena”, entzungo zenuen askotan...

Aitor Arana idazlea Nafarroako euskalki guztiak biltzen ari da. Hark esan zidan nirea oso lan ona zela, baina “zoroiei baino ez” zuzendua. Hau egin dut pitzatuta nagoelako, jakin badakit.

Dena den, badarabilzu buruan beste proiekturen bat.

Bai. Euskara-uskara hiztegia osatzen ari naiz. Bestalde, Gardeko alkatearekin hitz eginda nago erronkaria eskolak emateko. Ez du zertan talde handia atera behar, bost pertsonekin oso gustura arituko nintzateke. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

